



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Letren Fakultatea**

EUSKAL IKASKETETAKO GRADUA

2022-2023

CORPUSAREN EGOERA HOBETZEN: XURIOREN *IMITACIONEA*-REN ALEAK  
XVIII. MENDEAN

Egilea: Leyre Belen Irure Sierra

Tutorea: Blanca Urgell

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

## Laburpena

Michel Xuriok, Donibane Lohizuneko erretore izandakoa, *Jesu-Christoren Imitacionea* (1720) euskarara itzuli zuen. Liburua, autorea hil eta bi urtetara argitara eman zen, Bordelen, eta ondoren hainbat edizio izan zituen XVIII. eta XIX. mendeetan zehar. Xurioren liburua eta haren bizitza aztertu gabe dago gehien bat, eta bide horretan aurrera egiteko helburuarekin, abiapuntu gisa XVIII. mendean zeharreko edizioak baliatu ditugu. Lanaren muina edizio hauen arteko harremana aztertzea izan da (*recensio*), eta filologiaren metodologiaren arabera egin dugu (Blecua 1983, ap. Atutxa 2008). Lekukotasunen filiazioa zehazteko, lehenik hautatuako liburutegi digitaletan eskuragarri izandako ale digitalizatuak bildu eta sailkatu ditugu (*fontes criticae*), Vinsonen (1984) lanaren laguntzaz. Bigarrenik, ale bakoitzaren deskribapen formala eta erkaketa egin dugu: azalak eta liburuaren atalak alderatu ditugu (*collatio codicum*). Hirugarrenik, edizio bakoitzeko hasiera eta bukaerako lagin bat hartu eta konparatu ditugu (*examinatio eta selectio*). Hasierako tako xilografikoen marrazkietan, edukiaren atal banaketan eta konparaketan topatutako akats bateratzaile eta aldaera berri partekatuei esker, edizioen arteko filiazio harreman proposamena egitea lortu dugu (*constitutio stemmatis codicum*).

## Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
1.1.  Testuinguru historikoa, eta autorea.....	3
1.2.  Helburuak.....	6
1.3.  Metodologia.....	7
1.4.  Vinsonen lana.....	9
2. <i>RECENSIO</i> .....	10
2.1. <i>Fontes criticae</i> : bilketa eta sailkatzea.....	10
2.2. <i>Collatio codicum</i> : edizioen deskribapena eta erkaketa.....	11
2.2.1. Azalen alderaketa.....	11
2.2.2. Tamaina eta zatiak.....	18
2.3. <i>Examinatio eta selectio</i> .....	24
2.4. <i>Constitutio stemmatis codicum</i> .....	33
3. ONDORIOAK.....	34
BIBLIOGRAFIA.....	36
1. ERANSKINA: <i>Lehenbicico Liburua</i> , “I. Capitulua”.....	38
2. ERANSKINA: <i>Laugarren Liburua</i> , “VII. Capitulua”.....	39
3. ERANSKINA: bildutako aleen taula.....	40

## 1. SARRERA

### 1.1 Testuinguru historikoa eta autorea

Atal honetan XVIII. mendeko Lapurdin bizi zen egoera deskribatuko dugu, Xurioren dotrina argitaratu zenekoa, 1720. urtean. Mende honetan, Lapurdik gainbehera bat jasanen du aurreko mendeko egoerarekin alderatuz. Izan ere, lapurtera klasikoa izendatutako arotik gatoz, non euskaraz idatzitako literaturaren loraldia bizi izan zen. Obraren testuinguru historiko egokia egiteko helburuarekin, lehenik lapurtera klasikoaren garaia izanen dugu hizpide. Bigarrenik, lapurtera klasikoaren ondoko historia erlijioso eta ekonomikoaren berri emanen dugu, orduko euskara maila baldintzatu izan zezaketen beste faktore batzuk ere kontuan harturik. Hurrengo paragrafoetan emango ditugun datuak Krajewska *et al.* (2017: 5-10) lanetik hartu ditugu.

Lapurtera klasikoaren fenomenoak bi faktore nagusirengatik jazo zen, hizkuntzaz kanpoko historiari dagokionez. Alde batetik gatazka erlijiosoa puri-purian zegoen: XVI. mendean protestantismoaren harira sortutako kontraerreforma XVII. mendean islatu zen, eta hainbat produkzio literario bultzatu ziren, batez ere helburu didaktiko eta moralizantea zituzten liburuak, eta lekuan lekuko hizkuntzetan. Bestalde, Lapurdiko kostaldeko nabigazioaren hazkundeak eragina zukeela aldeztu zuten zenbait autorek (Lafitte 1941, ap. Krajewska 2017: 6). Egoera honek lurraldeko burgesiaren sorrera eta egonkortzea suposatu ahal izan zuen.

Euskararen ikuspegitik begiratuta, Oihartzabalen (2001b) azalpena gailentzen da (Oihartzabal 2001b, ap. Mounole & Gómez 2018: 478, 479). Hego Euskal Herrian, gaztelania aspaldi kultur eta botere hizkuntza bilakatu zela, euskara idatzia XVIII. mendearen bigarren erdira arte nekez garatuko zen. Iparraldean, ordea, burgesiak besterik ez zuen menperatzen orduko kultur hizkuntza, hau da, latina. Hori dela eta euskara maila ertain eta apaleko gizartearentzat idatzitako testuak ekoizten hasi ziren.

Aro oparo honen adibide dira, esaterako, Mattered (1617, *Doctrina Christiana*), Etxeberri Ziburukoa (1627, *Manual Devotionezcoa* eta 1632, *Noelac*), Axular (1643,

*Guero*) edo Pouvreau (1656, *Guiristinoaren Dotrina*).

xvii. mendearen bukaeran ekoizpenek behera egingen dute, eta aurreko mendean ikusi dugunaren kontrara, Lapurdik produkzio literarioan lehena izateari uzten dio xviii. mendean. Laffiten ustetan, Lapurdiko gainbehera literario honen arrazoietakoa bat Utrechteko itunaren ondorioz (1713) jasandako baldintza ekonomiko eskasak izan ziren. Gainera, 1789ko Iraultzak ondorio zuzenak izan zituen euskararen erabileran, euskaldunek foruak galdu baitzituzten eta frantsesa Frantziako hizkuntz ofizial bakartzat jo baitzen. Hizkuntzaz kanpoko arrazoiak edozein direla ere, hizkuntzaren historian Oihartzabalek (2001b) azaldutako historiako aldaketa soziolinguistikoak dira kontuan hartu behar ditugun lehenak: xviii. mendean zehar Iparraldean frantsesa estatusa irabazten joanen da, eta maila sozial handi eta ertaineko jendeen artean hedatuz joanen da. Ondorioz, euskarazko obren kopurua txikituz joan zen, honek dakartzan ondorio soziolinguistiko eta kultural guztiekin (Mounole & Gómez 2018: 469-489).

Hemendik aurrera literatur produkzioa Hegoaldean hasiko da nagusitzen, non Larramendiz geroztik pizkunde literario bat etorriko den. Hala ere, honek ez du esan nahi Lapurdiko ekoizpena etengo denik, eta aztergai dugun obra horren adibide da.

Michel Xurio Azkainen jaio zen, “Martze-enia” etxean (bizitzaren inguruko datuak Oinandia 1972 lanetik aterata). Apaiz ikasketak bukatu eta Donibane Lohitzunera bidali zuten bikario lanetan. Ondoren, 1702an erretore izendatu zuten. 1718an hil zen. *Jesu-Christoren Imitacionea* liburua utzi zigun, Bordelen 1720ean inprimatua, Guillame Boude Boe inprimategian. Baimena Ander Druillet gotzai jaunak eman zion, 1719an. Ez da euskal literaturan *Imitacionea*-ren lehenengo itzulpena, ezta azkena izango ere. Aurretik Pouvreauk *Jesusen Imitacionea* itzuli bai, baina argitaratu gabe utzi zuen 1650. urtea aldera. Arambillaga izeneko apaiz batek ere 1684. urtean *Imitacionea* itzuli zuen euskarara, baina Laffiteren esanetan nahiko traketsa. Honen ondotik Xurioren *Imitacionea* hainbatetan izan da berriz inprimatua, Bodelen, Baionan, zein Frantziako Tolosan. Vinsonen arabera, bederatzi edizio ditugu, xviii. eta xix. mendeetan sakabanaturik. Oinandiaren esanetan, Xuriok berak ezin izan zuen liburua osorik itzuli, hau bukatu baino lehenago hil baitzen. Honen ordeztan, laugarren liburua bere arreba

euskaratua omen dela dio.<sup>1</sup>

Ezin uka daiteke Xurioren obra euskal literaturaren erakusgarri aparta izan zenik. Villasanteren hitzak berreskuratuz (Villasante 1979: 109 - 110).

Aunque no es la primera traducción del Kempis (pues antes había sido traducida esta obra por Arambillaga y Silvain Pouvreau), ésta era mucho más perfecta y respondía mejor a las exigencias del público euskaldun. Chourio es uno de los más egregios representantes del labortano clásico por la dignidad, nobleza y majestad de su lengua.

Laffitek ere (Laffite 1931: 62):

Jadanik Pouvreau-k gure mintzaierat bihurtu zuen lan aipatua, ez ordean argitarat eman. Arambillaga deitu apez batek 1684-ean *Imitazione* bat egin zuen eskuaraz. "Egin" erran baitugu, "huts-egin" erran beharko ginuen. Beharrik Chourio-ren liburua agertu baitzen. Nahiz geroztik hunat eskuarazko *Imitazione* hoberik moldatu den, hau ez daukagu batere gutiesteko

Eta bukatzeko, Onandiaren hitzak (agian Laffiteren hitzak berreskuratuz):

Itzai so egiñik erderakada politak dituen arren, idazle bikaiña dugu Xurio, arin ta jariotsu bai darabil luma. Lapurdieraz ikasteko maisu dugunik ezin uka dezakegu.

Michel Xurio lapurtera klasikoaren epinogotzat hartu dezakegu, eta honen garaiko obrak ez daude nahi genukeen bezain aztertuak. Are gehiago, euskara zahar eta klasikoko Iparraldeko obrei ez zaie arreta berezirik jarri, eta arrazoia ez datza materialen faltan. Gainera, Salaberrik (2018: 303) aipatzen duen bezala, kontuan hartu behar dugu gure klasikoen azterketaz hitz egiterako orduan, eskuzko inprentaren garaiko lanaren berezitasunei garrantzi gutxi eman zaiola. Ulibarriren (2009: 861-862) hitzak gurera ekarriz, badirudi XIX. mendeko euskaltzaleek egin ahal zen guztia egin zutela, hau da, Vinson edo Urkijo bezalakoek egindako lanarekin nahikoa izan zela. Hala, bibliografia materiala gurean oraindik behar bezala garatu gabeko ikerlerroa dela esaten du. Zentzu honetan, azterketa filologiko bat egiteko testua ondo ezagutu behar dugu, honen testuingurua eta, eskuzko inprentako testuen kasuan, honen prozesuak ere sakonki landuz. Xurioren inguruko behar bezalako lanik ez dago, eta bide horretan

---

<sup>1</sup> Egun Urgell datu honen harira lanean ari da.

ardaztuko da lan honen muina: oraindik ganoraz aztertu gabeko Xurioren *Imitacionea*-ren azterketan gure ekarpen egitea.

## 1.2 Helburuak

Hurrengo paragrafoetan landuko dugun edukia Euskararen Historia I ikasgaiaren eskuliburu argitaragabetik atera dugu (Urgell 2022). Hizkuntzaren historia ikertu nahi duenak bi alderdi kontuan hartu beharko ditu, Lakarrak (1997) esan bezala. Alde batetik, corpusaren aberastasuna edo izaera kontuan hartu behar dugu, hau da, denbora zein edukiaren aldetik nolakoa den testu-corpusa. Bestalde, corpus horren ezagutza edo egoera kontuan hartu behar dugu, hau da, dauzkagun datuak zenbateraino izan diren bilatuak, aurkituak, antolatuak, eskura jarriak eta aztertuak. Hortaz, ez da nahikoa corpus bat izatearekin, corpusaren alderdi hauek ere menderatu behar dira.

Lakarraren ustetan, euskal corpusaren egoera ez da nahi genukeen bezain ona. Euskararen historiak azkeneko bi mendeetan idatzi dena kontuan hartuta, saio gehiago idatzi dira euskararen etorkiez, euskarari berari buruzkoak baino. Esate baterako, ez dugu monografiarik xvii. mendeko goi-nafarreraren txistukariez, ez mende bereko zubererazko aditzaz. Gauza bera dakusagu euskal testuetan erabili izan den ortografia sistemaren historian, eta hau berau aztertzeke lanabesen garapen mailan. Hori gutxi ez balitz, azkenotan egin diren zenbait “edizio kritiko” ez dira ganoraz egindako lanak. Esate baterako, Luis Mari Mujikak (Euskaltzaindia, 1986) argitaratutako Prai Bartolomeren *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (1816) liburuarena, edota Patri Urkizuk (2004) Lazarragaren eskuizkribua ezagutzera eman zenean argitaratutakoa. Filologi irizpideen arabera oinarri hartu gabeko lan hauek, hizkuntzaren historiaren ezagutzan oztupoak baino ez dira.

Hala ere, egia da azken urteotan hobekuntza nabarmenak ere egin direla. Oro har, lan orokor gutxi baina ganorazkoak egin dira, esaterako: Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language* artikulua bilduma, Trask, 1997, *The History of Basque*, (nahiz eta gaizkiulertu eta hutsune zenbait izan), eta Martínez-Areta (arg.), 2013, *Basque and Proto-Basque*. Kanpo eta barne historia uztartzen dituen lan ezinuntzizkoa ere bada, *Euskararen historia* liburua, Gorrochategi, Igartua & Lakarraren eskutik, 2018an argitaratua. Datuen eskuratzean eta sistematizatzean ere aurrerapen handiak egin dira, Gorrochateguiaren tesia (1984) kasu, akitanierazko corpusaren bildumarik osoena, edota Eusko Ikaskuntzak bultzatutako “Fuentes

documentales medievales del País Vasco” bilduma (1982tik aurrera).

Bibliografiaren alorrean, corpusen bilketa eta digitalizatzearen egoera nahikotxo hobetu da *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987-2005), *Euskal Klasikoen Corpora* (EGK; lehenago *Corpus Arakatzaila*, 2007) edota liburutegi ezberdinek eskainitako datuei esker. Izan ere, alor honetan egindako lan gehiena, liburu eta artxibozainek egin dute. Funtsen katalogazio onaren eta sarean ipintzearen ondorioz, lekukotasunen aurkitzea erraztu digu, esaterako, lan hau egiterako orduan. Hala ere, badira katalogatu gabeko funtsak oraindik ere. Bibliografia sistematikoan ez ditugu hainbeste aurrerapauso ikusten. Urgell-en (2013) ahotan, sistematizazioan ez dugu ezer askorik aurreratu Vinsonez geroz (1891-1898). Tartekako saioak ere egin dira, Altzibarren (1990b, 1991a, eta 1992a), Atutxaren (1999, 2001, 2002, 2008, 2011), edota Nagore Etxebarriaren (2005) lanak kasu.

Arestian aipaturikoa kontuan harturik, lan honen helburua bibliografia sistematikoaren aldetik euskal corpusaren egoera hobetzea izango da, obraren edizioen eta aleen konparaketa eginez: Xurioren *Imitazionea*-rena. Izan ere, arestian aipatu bezala orain arte edizioen inguruko lan analitiko-deskriptiborik ez da egin. Lan honen bidez, hortaz, lekuko eta garaiko euskararen ezagutzan aurrerapausoak egiteko baldintzak sortzea da, etorkizuneko edizioak elikatzeko helburuarekin.

### 1.3 Metodologia

Atutxak (2008) “Las obras de Joanes Etxeberri de Ziburu” lanean erabiltzen duen metodologiari jarraiki, guk ere Blecuak (1983) bere eskuliburuan azaltzen duen filologiaren metodologian oinarrituko gara. Autoreak edizio kritikoaren bi faseez dihardu: lehena, materialen arteko lotura edo filiazioa zehazten duen fasea da, eta bigarrena erabakitze-fasea, irakurleei testu kritiko bat ematea helburu duena. Lehenengo faseari *recensio* deritzen, bigarrenari *constitutio textus*. Gure lana lehenengo fase honen garapenean oinarrituko dugu, Xurioren liburuaren azterketan lehenengo pausoak ematea baitugu helburu, eta lan askoz zabalago bat behar genukeelako obraren edizio kritiko bat egiteko. Lehenengo fase hau, *Recensioa*, lau zatitan banatzen du: a) *fontes criticae*, edo materialen bilketa eta analisi historikoa; b) *codicum collatio*, hau da, testigantza guztien erkaketa aldaerak zehazteko helburuarekin (*lectiones variae*); c) aldaeren *examinatio eta selectio*, eta d) *constitutio stemmatis codicum*, ahal bada.

*Fontes criticae* fasean, hautatu ditugun liburutegietan aurkitu ditugun Xurioren



*Jesu-Christoren Imitacionea*-ren edizioen ale digitalizatu guztiak bildu ditugu. Liburuaren argitalpen ugariak direla eta, gure lana XVIII. mendeko edizioen azterketara mugatuko dugu. Bibliografia materialaren lehenengo lan handia Julien Vinsonek egin zuen, eta liburu honetan oinarrituko gara materialen bilketa eta analisisa egiteko (ikus § 1.4). Atal honetan kontsultagarri izan ditugun liburutegiak aipatuko ditugu eta lortutako aleen lehenbiziko sailkatze bat proposatuko dugu.

Bigarrenik, *collatio codicum* atala dugu, non edizioen arteko erkaketa eginen dugun. Atutxaren lanari jarraiki (2008: 6), edizio kritiko zorrotz batek lekukotza guztien erkaketa pertsonala eskatzen du, nahiz eta aurretik azterketa edo sailkatze gehiago egon. Hortaz, testigantzen zuzeneko erkaketak hasierako eginbehar gisa ezarri dugu. Osterantzean, aurrekoek egin zitzaizketen akats berberak errepika genitzake. Honen adibide Atutxak egindako lanean bertan ikus dezakegu (2008: 6-7). Etxeberri Ziburukoaren *Noelac*-en edizioen arteko erkaketa egiten ari zela, edizio bereko ale batzuek aldeak erakutsi zituzten. Teorian 1697ko edizioko bi ale berdinen aurrean zegoen (Vinsonek 15c gisa katalogaturikoak), baina bi aleak edizio ezberdinetakoak zirela ohartu zen, eta katalogatu gabeko edizio berri bat aurkitu berri zuela, beraz. Horrenbestez, Vinsonek aipatzen duena betetzen dela egiaztatzeko lortu ditugun edizioen deskribapena egingo dugu.

Horretarako Gaskellek (1999) bibliografia analitikorako aipatzen dituen teknikak baliatuko ditugu. Autore honek zenbait puntu garatzea proposatzen du: hasteko, azalaren transkripzioa, non edizioaren identifikazioa egiten den; bigarrenik, liburuaren formatua eta egituraren deskribapena, orrialde kopuruaren zenbakitzea; hirugarrenik, deskribapen teknikoak, hala nola tipografia, papera eta tartekatutako laminak; laugarrenik, liburuaren edukiari buruzko xehetasun batzuk; eta, azkenik, liburuaren historiari buruzko beste edozein informazio. Bibliografia analitikoak normalean bost atal horien inguruko informazioa biltzen duen arren, gure kasuan atal bakoitzari emango zaion garrantzia desberdina izango da. Egiazki, gure interes nagusia testuan dago, ez inprimatzaile baten edo beste baten lana denentz frogatzen. Hortaz, lehenengo eta bigarren puntuak garatuko ditugu esku artean ditugun edizioen erkaketa egin ahal izateko. Paperari edo tipografiari buruzko informazioaren deskribapenean ez dugu arreta berezirik jarriko.

Hirugarren atala *examinatio* eta *selectio* izanen da. Aleen erkaketa burutuz edizioen

arteko filiazioa argitzea izanen da helburua. Edizioen arteko filiazio harremanak zeintzuk izan ziren jakiteko, Atutxak ohiko akatsak identifikatzen ditu. Gure lanean edizioz edizio emandako aldaketetan oinarrituko gara, bi lekukotasun edo gehiagok modu independentean egin ezin izan dituzten aldaketak kontuan hartuz. Gainera, erkaketa honek hizkuntza irizpideetan aldaketak egon ote ziren jakiten laguntzen digu. Edizio arteko bi kapituluren erkaketak egingen ditugu, atal bakar bateko lagin luze bat erabili beharrean. Izan ere, aurreikusi dezakegu itzulpena ez dela berdina izango hasierako eta bukaerako ataletan, zaila baita hasi eta buka berdin jokatzeari, are gehiago halako denbora luze bat eskatzen duten lanetan. Alde batetik *Lehendabico Liburua*-ren “I. Capitulua”-ren erkaketa, eta bestetik, *Laugarren Liburua*-ren “VII. Capitulua”-ren erkaketa, agian edizioetan aurrera egin ahala zuzendutako akatsek datu interesgarriren bat emango digutelakoan. Ezberdintasunen deskribapena egiteko Salaberrik *Axularren Gero liburuaren ale kasi birginaleko “M” pleguaz* lanean erabiltzen duen eredua baliatuko dugu.

#### **1.4 Vinsonen lana**

Xurioren obra aztertzeke Vinsonen lana ezinutzizkoa izango zaigu. Horretarako Vinsonen *Bibliographie de la Lengue Basque* (1984) deskribapen bibliografikoa baliatuko dugu, Urkijoren oharrekin batera. Bidenabar, Urkijok erabilitako aleak gorde direla badakigu, Koldo Mitxelena Kulturuneak honen funtsak gordetzen baititu. Vinsonen bere liburuan berak ikusitako Xurioren liburuaren edizioak biltzen ditu 49. zenbakiaren barnean, eta hauen deskribapen bibliografikoa egiten du. Sailkatze hau gure lanaren abiapuntutzat hartu dugu, XVIII. mendeko edizioak zeintzuk izan ziren hautatzeko baliatu baitugu.

Vinsonen bederatzi edizio seinalatu zituen: 49a (1720, Bordele), 49b (1720, Bordele), 49c (1760, Baiona), 49d (1769, Baiona), 49e (1788, Baiona), 49f (1825, Tolosa), 49g (1850, Tolosa), 49h (1855, Baiona), eta 49i (1872, Baiona). Guk XVIII. mendeko edizioekin bakarrik egingen dugu lan: beraz, lehenengo bostekin.

1872. urteko ediziotik aurrera, ez dira argitalpen gehiago egon. Laffitek (1931:62) liburuaren atal bat aipatzen du, eta 1978. urtean Hordagok faksimilea argitaratu zuen, grafia gaurkotua beste aldaketarik gabe, izengabea eta datagabea. Ostera, “Klasikoan Gordailua” edizio bat argitara eman zuen, Hordagoko faksimilean oinarrituz.

## 2. *RECENSIO*

### 2.1. *Fontes criticae: bilketa eta sailkatzea*

Jarraian zerrendatu ditugun liburutegietako XVIII. mendeko ale digitalizatuak batu ditut. Hurrengo liburutegi digitalak zein funts digitalen bilduma handiak dituzten liburutegiak kontuan hartu ditut: Koldo Mitxelena Kulturunea<sup>2</sup>, Bizkaiko Foru Aldundia<sup>3</sup>, Sancho el Sabio Fundazioa<sup>4</sup>, Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegia<sup>5</sup>, BINADI Nafarroako Liburutegi Digitala<sup>6</sup>, Liburuklik<sup>7</sup>, Bilketa<sup>8</sup>, Baionako Euskal Museoa<sup>9</sup>, Gallica<sup>10</sup>, eta, azkenik, Hispanica<sup>11</sup>.

Bilaketan erabilitako hitza “Chourio” autorearen izena izan da, eta *Jesu-Christoren Imitacionea* izenburua duten eta XVIII. mendean argitaratutako aleak hautatu dira. Hispanica eta BINADI liburutegien kasuan ez dugu emaitzarik topatu. Bilaketaren emaitzak 3. eranskinean atxikitako taulan daude ikusgai, non letra lodiz nabarmendu gabe dauden aleak digitalizatu gabekoak diren, eta lodiz nabarmendutakoak, ordea, digitalizaturik eskuragarri ditugunak. Guztira 14 ale bildu ditugu: 1720. urteko edizioetatik lau ale (Vinson 49-a edo 49-b?), 1760. urteko ediziotik bi ale (Vinson 49-c), 1769. urteko ediziotik lau ale (Vinson 49-d), eta azkenik 1780. urteko ediziotik lau ale (Vinson 49-e).

Deskribapen bibliografikoan murgildu baino lehen, esan beharra dago arestian aipaturiko liburutegietako bilaketaren emaitzara mugatu ditugula gure euskarriak. Hortaz, guk hamalau ale bildu ditugun arren, ez dakigu edizio bakoitzeko zenbat ale digitalizaturik dauden munduan, eta are gutxiago, zenbat ale existitzen diren.

Baliatutako funts zein liburutegi digital guztietan gutxienez ale bat topatu dugu, Hispanica eta BINADI liburutegi digitaletan izan ezik. Aleen laburdurak ezartzeko, alde

---

<sup>2</sup> <https://kmk.gipuzkoa.eus/eu/katalogoa>

<sup>3</sup> <https://bibliotecaforal.bizkaia.eus>

<sup>4</sup> <https://www.sanchoelsabio.eus>

<sup>5</sup> <http://www.unavarra.es/biblioteca>

<sup>6</sup> <https://binadi.navarra.es>

<sup>7</sup> <http://www.liburuklik.euskadi.eus>

<sup>8</sup> <https://www.bilketa.eus>

<sup>9</sup> <http://pmb.musee-basque.fr>

<sup>10</sup> <https://gallica.bnf.fr>

<sup>11</sup> <https://www.bne.es/es/catalogos>

batetik, funts propioak dituzten liburutegien kasuan liburutegi beraren izena erabili dugu: KMK (Koldo Mitxelena Kulturunea), BFA (Bizkaiko Foru Aldundia), SSF (Sancho el Sabio Fundazioa), NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa). Bestalde, bilatzaile digitalen bidez topatutako aleei liburutegiaren laburduraren izendapena ezarri diogu: Liburuklik bilatzailearen bidez Eusko Legebiltzarraren Ondarearen (ELO) bi ale aurkitu ditugu, Bilketa bilatzailearen bidez Bibliothèque Mediathèque Bayonne (BMB) liburutegiko ale bat, eta Gallica bilatzailearen bitartez Bibliothèque Nationale de France (BNF) liburutegiko bi ale. Bukatzeko, laburdura bakoitzari aurretik dagokion argitalpen urtea ezarri diogu.

Hortaz, behin-behinean hala geldituko litzateke gure izendapen taula :

1720ko edizioak	1760ko edizioak	1769ko edizioak	1788ko edizioak
1720-BFA	1760-KMK	1769-KMK	1788-KMK
1720-BMB	1760-ELO	1769-SSF	1788-SSF
1720-NUP		1769-BFA	1788-ELO
1720-SSF		1769-BNF	1788-BNF

1. taula: behin-behineko izendapen taula.

## **2.2. *Collatio codicum*: edizioen deskribapena eta erkaketa.**

### 2.2.1 Azalen alderaketa

Hasteko, 1720ko edizioen azalak ditugu. Has gaitezen hortaz hauek alderatzen. Testuari dagokionez, bi testu ezberdin antzeman ditzakegu.

Lehenengoaren testua:

JESUS-CHRISTOREN | IMITACIONEA. | M. CHOURIO *Donibaneco Erretorac* | *e/çararat itçulia*. | BORDELEN, | GUILLAME BOUDE' BOE' Imprimatçaille, eta Liburu | Mercataria baitan, Jondoni Jacubaco carrican, | Mercatu handiaren aldean. | - | M. DCCXX. | *PERMISIONEAREQVIN*.

Bigarrenarena:

JESUS-CHRISTOREN IMITACIONEA · | M. CHOURIO *Donibaneco Erretorac* | *e/çararat itçulia*. | BORDELEN, | GUILLAME BOUDE' BOE' Imprimatçaille, eta Liburu | Mercataria baitan, Jondoni

Azal hauetan hurrengo informazioa agertzen zaigu: Liburuaren izenburua, autorea, honen kargua, zein hizkuntzataraz itzulia izan den, non eta zein inprimategitan argitaratu den, zein kaletan, argitaratze urtea eta baimena. Biek Vinsonen “49.a” eta “49.b” edizioen deskribapenarekin bat egiten dute.

Hala ere, zenbait alde ikus ditzakegu. Lehenengo testuan, “IMITACIONEA” hitzaren bukaeran puntuazio baxu bat dago; bigarrenean, ordea, altuera erdiko puntua. Gainera, lehenengoan argitaratze urtea “M.DCCXX” formatuan ematen digu, eta bigarrenean aldiz, “M.DCC.XX.” formatuan. “DCC”-ren ostean puntua adierazita dago, lehenengo testuan ez bezala. Bukatzeko, “PERMISIONEAREQUIN” hitza lehenengoan -s- bakarrarekin idazten du, bigarrenean “PERMISSIONEAREQUIN” -s- bikoitzarekin ikus dezakegu.

Testuaz gaindi, azalak ezberdinak egiten dituen bigarren faktore bat dago: tako xilografikoa. Ulibarrik (2009) *Viva Jesus* dotrina datatzeko erabili zuen tresna honi arreta jarriko diogu jarraian datorren atalean.

Lehenengo takoaren marrazkian, aingeru bat oparotasunaren bi adarren artean ageri zaigu:



1. irudia: aingerua oparotasunaren bi adarren artean.

Ostera, bigarrenaren ereduaren marrazkian loreontziak agertzen zaizkigu, zenbait apaingarriz inguratuz:




## 2. irudia: loreontzia apaingarriekin.


Arestian aipatutakoa kontuan harturik, urte bereko bi edizio ezberdin direla ondoriozta dezakegu. Deskribatutako lehenengo azalarekin bat egiten duten aleei 1720A izendapena ezarriko diegu, eta bigarrenarekin bat egiten dutenei, 1720B, Vinsonen izendapenari jarraiki. Lehenengoaren baitan ale bakarra bildu dugu: 1720A-BFA. Bigarrenaren baitan, bi: 1720B-NUP, eta 1720B-SSF. Laugarren ale bat daukagu (momentuz 1720?-BMB), azala kontserbatzen ez duena, bakarrik “LEHENBICICO LIBURUA”-tik aurrerako orrialdeak gorde baitira. Hortaz, azalaz gaindiko elementuak lehenengo eta bigarren edizioaren aleak beste aleekin konparatu ditugu. Elementu bat baino gehiago balia genezake 1720B edizioaren alea dela esateko; gu hurrengo ezaugarrian oinarrituko gara: har dezagun “LEHENBICICOLIBURUA” atalaren (1. or.) goiko parteko marrazkia.



3. irudia: 1720A-BFA.



4. irudia: 1720B-NUP.



5. irudia: 1720B-SSF.



6. irudia: azalik gabeko alea.

Nabarmena denez, 1720B edizioaren irudi bera aurkitzen dugu azalik gabeko alean. Hori bakarrik ez, eta egur zatiaren higatze marka bertsuak erakusten dituztela ikus dezakegu: goiko lerro lodiak bi koska berdintsu ditu erdialdera, eta higadura markak eskuinaldeko izkinaren aldean. Higadura marka hauek gorritz inguraturiko beste hainbeste xehetasunetan ere antzeman dezakegu: hostoetan, loreetan, beheko lerroan... Tako xilografiko bera erabili zela ondoriozta dezakegu, kronologikoki momentu bertsuan. 1720. urteko edizioaren azalik gabeko ale honi 1720B-BMB izendapena ezarriko diogu.

Hortaz, Vinsonek aipatutako edizio bakoitzetik behintzat liburu bana biltzea lortu dugu. 1720. edizioen aleen izendapen berria:

1720ko lehenengo edizioa	1720ko bigarren edizioa
1720A-BFA	1720B-BMB
	1720B-NUP
	1720B-SSF

2. taula: 1720. edizioen aleen izendapena.

Vinsonek bigarren edizio honi buruz zenbait datu garrantzizko ematen dizkigu. Alde batetik, edizio hau aurrekoa baino askoz traketsagoa dela (ikus § 2.3, edizioen arteko konparaketa) eta liteekena da 1720. eta 1750. urteen artean egindako *contrefaçon*-a izatea, Baionan inprimatutakoa (ez Bordelen). *Contrefaçon*-ak garaiko faltsutzeak ziren, lehenengo edizioaren arrakasta probestu nahi zutenak, baimen legalik gabe. Garai



honetan oso ohikoak ziren. Bestalde, papera eta tipografia Axularren bigarren edizioaren oso antzekoa dela ere badio Vinsonek.

Hurrengo edizioa 1760. urtekoa dugu. Batu ditugun bi aleetan (1760-ELO, 1760-KMK), azalaren deskribapena bat eta bera da, ez dugu bataren eta bestearen arteko ezberdintasunik antzematen:

JESU-CHRISTOREN | *IMITACIONEA*, | M. CHOURIO Donibaneco Erretorac, | *Ejcararat itçulia*. | EMENDATUA | Meçaz eta Igandetaco Befperez. | = | *Hunen Precioa da 45 f.* | = | (apaingarri batzuk) | *BAYONAN*, | PAUL FAUVET, Erregueren Liburu-Eguille eta | Saltçaille baitan, Bortz- Cantoïñetan aldean. | = | M. DCC. LX | *PERMISSIONEAREQUIN*.

Agertzen zaigun informazioa hurrengoa da: liburuaren izenburua, autorea, honen kargua, zein hizkuntzataraz itzulia izan den, gehitutako zatiak dituela, prezioa, non eta zein inprimategitan inprimatu den, kalea, argitaratze urtea eta baimena. Vinsonen “49. c” edizioaren deskribapenarekin bat egiten du.

Jarraian daukagun edizioa 1769. urtekoa da. Kasu honetan lau ale bildu ditugu: 1769-BFA, 1769-BNF, 1769-KMK eta 1769-SSF. Azala mantentzen duten aleetan ikus dezkegu deskribapena bera dela:

JESU-CHRISTOREN | *IMITACIONEA*. | M. CHOURIO Donibaneco Erretorac, | *Ejcararat itçulia*. | EMENDATUA | Meçaz eta Igandetaco Befperez. | = | *Hunen Precioa da 45 f.* | = | (apaingarri bat) | *BAYONAN*, | FAUVET-DUHART, Erregueren Liburu- | Eguille eta Saltçaille baitan, Apou- | maiouco carrican. | = | M. DCC. LXIX. | *PERMISSIONEAREQUIN*.

Agertzen zaigun informazioa hurrengoa da: liburuaren izenburua, autorea, honen kargua, zein hizkuntzataraz itzulia izan den, gehitutako zatiak dituela, prezioa, non eta zein inprimategitan inprimatu den, kalea, argitaratze urtea eta baimena. Vinsonen “49. d” edizioaren deskribapenarekin bat dator.

Kasu honetan ere, azalik gabeko ale bat dugu (1769-BNF), bakarrik XIX. orrialdetik aurrerako partea gordetzen baita. Nola dakigu edizio urte bereko alea dela, ordea? Aurretik 1720. urteko bigarren edizioan erabili dugun metodo bera erabiliko dugu hau egiaztatzeko. Kapitulu eta orrialde kopuru berak dituela kontuan hartuz, konpara ditzagun zehaztasunak. Esate baterako, “LEHENBICICO LIBURUA” atala hasten den orrialdeko marrazkiak (25. orrialdea):



7. irudia: 1769-KMK.



8. irudia: 1769-BNF.



9. irudia: 1769-SSF.



10. irudia: 1769-BFA.

Hortaz, agerikoa da irudi beraren aurrean gaudela. Gainera, eta lehen ikusi dugun bezalatsu, tako xilografikoaren higadura marka berak ikus ditzakegu marrazkietan.

1788. urteko edizioko lau ale bildu ditugu. Azalak hurrengo testua du:

JESU-CHRISTOREN | IMITACIONEA, | M. CHOURIO Donibaneco Erretorac, | *Ejcararat itçulia.* | EMENDATUA | Meçaz eta Igandetaco Befperez. | EMENDATUA othoitz eta pratica batez Ca- | pitulu baccoincharen akhabançan, çoinac | itçuliac içatu baitire Franceffetic Efcaratat | Bayonaco Dioceffaco Juan Apez Mif- | fioner batez. | (elizaren objektuekin egindako marrazkia) | BAYONAN, | TREBOS, Liburu. Sa1tçaille baitan, | Apoumaiouco carrican. | = | M. DCC. LXXXVIII. | *PERMISSIONEAREQUIN.*

Edukiari dagokionez, hurrengo informazioa ematen digu: liburuaren izenburua, autorea eta kargua, zein hizkuntzataraz itzulia izan den, frantsesetik euskarara itzulitako otoitzak eta praktikak emendatu direla kapitulu bakoitzaren bukaeran, non inprimatua izan den, argitaratze urtea eta baimena. Lehenbizikoz emendakinen autorearen inguruko informazioa emanen zaigu, nahiz eta izenik ez eman: “Bayonaco Diocessaco Juan Apez Missioner batez”. Orokorrean Vinsonen “49. e” azalaren deskribapenarekin bat dator, letra batean izan ezik: “baccoincharen” hitzaren lehenbiziko letra B larriz transkribatu du Vinsonnek, letra xeheaz beharrean.

### 2.2.2 Tamaina eta zatiak

Vinsonen deskribapen bibliografikoari jarraiki, aleen tamainari eta hauen baitako zatiei so egingo diegu. Edizio bakoitzaren hasierako edo atariko orrialdeak, edukiaren orrialdeak eta bukaerako eranskinen orrialdeak zenbatuko ditugu. Zati bakoitzaren

orrialde kopurua tauletan adieraziko dugu, eta taulen ondoren deskribapen zehatzago bat garatuko da. Gainera, gure analisia Vinsonen eta Urkijoren deskribapenarekin erkatuko dugu, eta desadostasunak egonez gero testuan aipatuko dira. Gehigarri moduan, Vinsonek ausaz hautaturiko zenbait esaldiren inguruan egiten dituen oharrek gure aletan berdin agertzen direnez egiaztatuko dugu, Urkijok esaten diguna ere kontuan hartuz.

### 1720A

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1720A-BFA	4 orrialde	426 orrialde	12 orrialde

3. taula: 1720A edizioaren banaketa.

- Atarikoa: 4 orrialde, zenbakirik ez.
  - 1-2: portada eta ostera idatzitako anotazioak “Joseph Villa-Realgorena...”.
  - 3-4: APROBACIONEA: HARISTEGUY Donibaneko erretorea, J. DARRECHE Ziburuko erretorea, DOLHABIDE Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore DUHALDE dira sinatzaileak.
  
- Edukia: 426 orrialde, zenbakiturik (1-426).
  - 1-90: LEHENBICICO LIBURUA.
  - 91-139: BIGARREN LIBURUA.
  - 140-347: HIRURGARREN LIBURUA.
  - 348-426: LAUGARREN LIBURUA.
  
- Eranskina: 12 orrialde, zenbakirik ez.
  - CAPITULUEN THAULA.

Vinsonen tamainari buruz esandakoa betetzen da. Oharrei dagokionez, Vinsonek aipatzen du 151. orrialdearen lehenengo lerroa “eta enga-” batekin bukatzen dela. Ez da hala gertatzen gure alean, “eta en-” bukaera baitauka. Urkijoren deskribapena gurearekin bat dator, berean ere “eta en-” bukaera deskribatzen du eta. Gainerako oharrei dagokienez, guztietan bat gatoz.

## 1720B

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1720B-BMB	Atarikoa faltan	426 orrialde	8 orrialde (4 faltan)
1720B-NUP	4 orrialde	426 + 11 <sup>12</sup> orrialde	12 orrialde
1720B-SSF	4 orrialde	426 orrialde	12 orrialde

4. taula: 1720B edizioaren banaketa

- Atarikoa: 4 orrialde, zenbakirik ez.
  - 1-2: portada eta orrialde bat hutsik.
  - 3-4: APROBACIONEA: HARISTEGUY Donibaneko erretorea, J. DARRECHE Ziburuko erretorea, DOLHABIDE Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore DUHALDE dira sinatzaileak.
  
- Edukia: 426 orrialde, zenbakiturik (1-426).
  - 1-90: LEHENBICICO LIBURUA.
  - 91-139: BIGARREN LIBURUA.
  - 140-347: HIRURGARREN LIBURUA.
  - 348-426: LAUGARREN LIBURUA.
  
- Eranskina: 12 orrialde, zenbakirik ez.
  - CAPITULUEN THAULA.

1720A edizioaren atal berak errespetatzen direla ikus dezakegu. Gainera, Vinsonek bere bibliografian deskribatutako tamaina eta zatiak gurearekin bat datoz. Urkijok ez du oharririk ematen.

---

<sup>12</sup> Ale honetan 92-103. bitarteko orrialdeak bi bider inprimatu ziren, edo bi bider eskaneatuak izan dira. 103. orrialdera iristerakoan, 92. orrialdetik hasten da berriz. Hortaz, 11 orrialde errepikaturik daude.

Ausaz hautatutako esaldien oharrei dagokienez, honetan ere bat datoz Vinsonen eta gure deskribapenak, zehaztasun batean izan ezik: gure aleetan 151. orrialdearen lehenengo lerroak “eta enga-” bukaera dauka, eta ez “eta en-”, autoreak aipatzen duen bezala.

### 1760

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1760-ELO	22 orrialde	356 orrialde	10 orrialde
1760-KMK	22 orrialde	356 orrialde	10 orrialde

5. taula: 1760. urteko edizioaren banaketa.

- Atarikoa: 22. orrialde, zenbaki erromatarretan (I-XXII). Bi orrialde hutsik.
  - I-II: portada eta orrialde bat hutsik.
  - III-XII: MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.
  - XIII-XVIII: IGANDETACO BESPËRETAN.
  - XVIII-XXI: IGANDETACO COMPLETETAN.
  - XXI-XXII: CANTICOA.
  - Bi orrialde hutsik, zenbakirik gabe.
  
- Edukia: 356 orrialde, zenbaki arabiarretan (1-356).
  - 1-2: APROBACIONEA: HARISTEGUY Donibaneko erretorea, J. DARRECHE Ziburuko erretorea, DOLHABIDE Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore DUHALDE dira sinatzaileak.
  - 3-76: LEHENBICICO LIBURUA.
  - 77-117: BI-GARREN LIBURUA.
  - 118-288: HIRURGARREN LIBURUA.
  - 289-354: LAUGARREN LIBURUA.
  - 355: GAUDEAC.
  - 356: IONDONI LEON OTHOITÇA.
  
- Eranskina: 8 orrialde, zenbakirik ez.
  - CAPITULUEN THAULA.

Edizio honetan zenbait atal gehigarri ikus ditzakegu. “MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC”, “IGANDETACO BESPËRETAN”, “IGANDETACO COMPLETETAN”, eta “CANTICOA” hasierako atalean. Emendakin hauek direla eta, APROBACIONEA liburuaren parte bilakatzen dute, zenbakitzean ikusi dezakeguz: aurreko edizioetan LEHENBICICO LIBURUA ataletik bereizten da; oraingoan, ordea, ez. Gainera, emendakinak zenbaki erromatarrez zenbakiturik daude, gainerako edukia zenbaki arabiarretan dagoen bitartean. Bukaerako partean, “GAUDEAC” eta “IONDONI LEON OTHOITÇA” atalak ere gehitu direla nabarmendu dezakegu. Hauek, gainerako emendakinak ez bezala, edukian txertatuz emendatu zituzten, zenbaki arabiarrekin markatuta baitaude. “CAPITULUEN THAULA” aurreko edizioetan bezala utzi zuten, zenbakuntzarik gabe. Portadan emendakinen autorea Baionako misiolari bat izan zela esaten da, baina ez da identitatea aipatzen. Vinsonek bere bibliografian deskribatutakoa gurearekin bat dator.

#### 1769

	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1769-BFA	24 orrialde	353 orrialde	7 orrialde
1769-BNF	5 orrialde <sup>13</sup>	353 orrialde	7 orrialde
1769-KMK	24 orrialde	353 orrialde	7 orrialde
1769-SFF	24 orrialde	353 orrialde	7 orrialde

6. taula: 1769. urteko edizioaren banaketa.

- Atarikoa: 24. orrialde, zenbaki erromatarretan (I-XXIV).
  - I-II: portada eta orrialde bat hutsik.
  - III-XII: MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.
  - XIII-XVIII: IGANDETACO BESPËRETAN.
  - XVIII-XXI: IGANDETACO COMPLETETAN.

<sup>13</sup> Liburuaren lehenengo 18 orrialdeak falta zaizkigu. XIX. orrialdetik XXIV. orrialderako edukia gorde da.

- XXI-XXII: CANTICOA.
  - XXIII-XXIV: APROBACIONEA: HARISTEGUY Donibaneko erretorea, J. DARRECHE Ziburuko erretorea, DOLHABIDE Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore DUHALDE dira sinatzaileak.
- Edukia: 353 orrialde, zenbaki arabiarretan (25-377).
    - 25-98: LEHENBICICO LIBURUA.
    - 99-139: BI-GARREN LIBURUA.
    - 140-310: HIRURGARREN LIBURUA.
    - 311-376: LAUGARREN LIBURUA.
    - 376-377: GAUDEAC.
    - 377: IONDONI LEON OTHOITÇA.
  - Eranskina: 7 orrialde, zenbakirik ez.
    - CAPITULUEN THAULA.

Edizio honetan azkeneko 1760. edizioaren atal berak mantendu direla ikus dezakegu. Hortaz, itxuraz 1769. urteko edizioa 1760. edizioaren gainean egin zela esan genezake. Hala ere, zenbakitzea ez zen berdin mantendu, eta horren harira gure sailkapena: “APROBACIONEA” atariko edukiaren baitan kokatzen da berriz, zenbaki erromatarrekin zenbakiturik. Bukaerako partea aurreko edizioan bezala mantentzen da: emendatutako bi atalak edukiaren baitan daude. Edizio honetan ere ez da aipatzen emendakinak egiten dituenaren identitatea.

Vinsonek bere bibliografian deskribatutakoa gurearekin bat dator, eta lerrokatzeari buruz aipatzen dituenak betetzen dira: 364. orrialdeak 1760. urteko edizioko 342. orrialdeak baino lerro bat gehiago du; 365. orrialdeak 343. orrialdeak baino bi gehiago; 366.ak 344.ak baino hiru gehiago, 367 eta 368.ak 345. eta 346.ak baino lau gehiago, etab.



	Atarikoa	Edukia	Eranskina
1788-ELO	24 orrialde	473 orrialde	8 orrialde
1788-BNF	24 orrialde	473 orrialde	8 orrialde
1788-KMK	24 orrialde	473 orrialde	8 orrialde
1788-SFF	24 orrialde	473 orrialde	8 orrialde

7. taula: 1788. urteko edizioaren banaketa.

- Atarikoa: 24 orrialde, zenbaki erromatarretan (I-XXIV). Orrialde bat hutsik bukaeran.
  - I-II: portada eta irudia.
  - III-XII: MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.
  - XIII-XVIII: IGANDETACO BESPÉRETAN.
  - XVIII-XXI: IGANDETACO COMPLETETAN.
  - XXI-XXII: CANTICOA.
  - XXIII-XXIV: APROBACIONEA: HARISTEGUY Donibaneko erretorea, J. DARRECHE Ziburuko erretorea, DOLHABIDE Azkaingo erretorea eta Baionako Monsinore DUHALDE dira sinatzaileak.
  - Orrialde bat hutsik: zenbakirik gabe.
  
- Edukia: 473 orrialde, zenbaki arabiarretan (26-498).
  - 26: irudia.
  - 27-123: LEHENBICICO LIBURUA.
  - 124: irudia.
  - 125-179: BI-GARREN LIBURUA.
  - 180: irudia.
  - 181-409: HIRUGARREN LIBURUA.
  - 410: irudia.
  - 411-495: LAUGARREN LIBURUA.
  - 496: AUTRE APPROBATION: D'ITURBIDE, Vic. Gen.

- 497: GAUDEAC.
- 497-498: IONDONI LEON OTHOITÇA.
- Eranskina: 8 orrialde, zenbakituak.
  - 499-507: CAPITULUEN THAULA.

1788. urteko edizioan aurreko bi edizioetan atxikitako parteak ez ezik, pasarte berriak ere gehitu zituztela ikusi daiteke. Gainera, 1769. urteko edizioan bezala “APROBACIONEA” atariko partean mantendu da. Horrenbestez 1769. urteko edizioaren gainean egindakoa dela ondoriozta dezakegu. Atal berriei dagokionez, “AUTRE APROBATION” (Iturbide sinatzailea) eta zenbait irudi berri nabarmendu ditzakegu. Oraingoan bukaerako eranskinean topatu izan dugun “CAPITULUEN THAULA” zenbakiturik dago.

“AUTRE APROBATION” atal berrian informazio baliagarri bat ematen zaigu:

(...) mais cette traduction, depuis long-temps autorisée dans ce Diocèse, ne contenoit point les Pratiques & les Prieres qu’un Auteur estimable a ajoutées depuis à la fin de chaque Chapitre. Monsieur Etcheberry, zélé Missionnaire, a cru qu’il ferait très-utile de les insérer dans la nouvelle impression qu’on va faire de l’ancienne traduction, & il les a aussi traduites en Basque. (496. orr.)

Iturbidek oniritzi honetan agerian jartzen du aurreko edizioek ez zutela zenbait praktika eta otoitzen itzulpena, eta oraingo honetan Etcheberry jaunak kapitulu bakoitzaren bukaeran otoitzak eta praktikak erantsi zituela, hauek ere *Imitazio*-tik itzuliak. Gogora dezagun emendakin berri hauen egilea liburuaren portadan aipatua dela, nahiz eta ez zen haren izenik ematen: “Bayonaco Diocessaco Juan Apez Missioner batez”. 1788-SSF alea lagin moduan hartu dugu, eta baimenean aipatu bezala “Cer eguin behar dut beraz?” eta “Othoitça” atalak agertzen zaizkigu kapitulu gehienen bukaeran. Zenbait kasutan ez da bete: IV. liburuaren IV, VI eta XVI kapituluetan ez da bata ez bestea agertzen; III. liburuaren XXVII, XXIX, eta XXXVI kapituluetan ez da “Othoitça” atala agertzen, bai, ordea, “Cer eguin behar dut beraz?” atala. F. Michel-en lanean (1857: 484) Etcheberry Uztaritzeko erretorea zela esaten da, eta 1788. urtea baino urte batzuk lehenago hil zela. Vinsonek bere bibliografian deskribatutakoa gurearekin bat dator.

### 2.3 *Examinatio eta selectio*

Arestian aipatu bezala, kapituluaren arteko erkaketari ekinen diogu edizioen arteko filiazio harremanak zeintzuk izan ziren jakiteko. Hala ere, orain arte edizioen atalen inguruan egindako azterketak nahiko informazio eman digu. Edizioz edizio pasarte berriak txertatu izanak arrastoak uzten ditu oinarritzat hartutako edizioaren kariatz. Momentuz, eta zatien eransketa kontuan hartuz, badakigu lehenengo edizioa 1720A izan zela, Vinsoni esker jakin izan dugu-eta 1720B edizioa “contrefaçon” bat izan zela. Gainera, 1720B 1720A edizioaren gainean egin zutela ondoriozta genezake, ez baititu 1760. urteko edo ondoko emendakinak barnebiltzen. 1760. urteko edizioa aurreko bi horietako batean oinarrituta dago, eta lehenengo emendakinak gehitzen zaizkio. 1769. urteko edizioa 1760. ediziotik abiatuta egin zen, 1760. urteko edizioan txertatutako atalak dituelako. Azkenik, 1788. urteko edizioak emendakin berriak ditu, baina orain arte dakiguna bakarrik jakinda, ezin baiezatu 1760. edo 1769. urteko edizioan oinarrituz egin ote zen. Bada, edizioz edizio gertatu diren aldaketak azter ditzagun.

Konparazioa egiteko edizio bakoitzetik *Lehenbico Liburua*-ren “I. Capitulu” eta *Laugarren Liburua*-ren “VII. Capitulu” hautatu ditugu.

Hautaketan hobeki gorde diren aleak lehenetsi ditugu. *Lehenbico Liburua*-ren kasuan 1720A-BFA, 1720B-SSF, 1760-ELO, 1769-KMK eta 1788-KMK aleak. Kapitulu honen erkaketaren emaitzak 1. eranskinean bilduta daude taula modura. *Laugarren Liburua*-ren “VII. Capitulu”-ren alderaketa egiteko beste ale batzuk hautatu ditugu, aurretik erabilitako aleek zenbait arazo erakutsi baitituzte liburuaren kapitulu honetan: 1720B-SFF alearen kasuan denborarekin ezabatutako zatiak ikus ditzakegu, eta honen ordeztu 1720B-BMB alea erabiliko dugu; 1788-KMK alearen kasuan orrialdeak ez daude osoki eskaneaturik, eta honen ordeztu 1788-SFF alea erabiliko dugu. Hortaz, hauek dira *Laugarren Liburua*-ren konparaketa egiteko erabiliko ditugun aleak: 1720a-BFA, 1720B-BMB, 1760-ELO, 1769-KMK, 1788-SFF. Erkaketa honen emaitzak 2. eranskinean bilduta daude taula modura.

Taulan aldaketa bakoitzari zenbaki bat eman diot, eta zenbaki hori erabiliz aipatuko ditut hemen. *Lehenbico Liburua*-ren kapituluaren 19 aldaketa topatu ditugu, eta

*Laugarren Liburua*-ren kapituluan 35, aurreko kapituluan baino 16 gehiago. Bi kapituluetan ikusitako adibideak aldaketa motaren arabera sailkatuko ditugu.

Hemendik aurrera, *Lehenbicico Liburua*-ren “i. Capitulu” “1.1. kapitulu” laburduraren bidez adieraziko dugu, eta *Laugarren Liburua*-ren “vii. Capitulu” “4.7. kapitulu” laburduraren bidez.

Bildutako ezberdintasunak garbiak dira, eta lau motaren arabera bana ditzakegu: hitz banaketak, maiuskula eta minuskula txandakatzea, grafia aldaketak eta puntuazio aldaketak.

- ❖ Hitz-banaketak: hitzak bereizteko edo elkartzeko egiten diren aldaketak ditugu, haien artean hutsune bat txertatzen edo kentzen dutenean. Lau motatako hitz banaketak ikus ditzakegu.
  - Aditz nagusia, “behar” aditza eta ondoan itsatsia doan aditz laguntzailea banatzen denean: 1.1. kapituluan: *içanbeharda* > *içan behar da* (2), eta *behardu* > *behar du* (9) adibideak ditugu; 4.7. kapituluan ez dugu horrelako adibiderik topatzen.
  - Bigarrenik, “ez” partikula aditzetik banantzean: 1.1. kapituluan, *ezbaitute* > *ez baitute* (8), *ezbaduçu* > *ez baduçu* (14); 4.7. kapituluan, *ezpailaiteque* > *ez bailaiteque* (5).
  - Hirugarrenik, 1720A eta 1720B edizioetan “bat” zenbatzailea izenari lotuta zihoala ikus dezakegu, aurreko hitzarekin unitate foniko bat osatuko balu bezala. Ondoko edizioetan bitan banatzen da: 1.1. kapituluan, *dohacabebat* > *dohacabe bat* (16), *handibat* > *handi bat* (17). 4.7. kapituluan adibiderik ez.
  - Laugarrenik, akatsen ondorioz gertatutako hitz banaketak ditugu. 1.1. kapituluan, “nola” galdetzailea ondoko formari lotzen zitzaioneko forma: *nolapresuna* > *nola presuna* (12). 4.7. kapituluan, bakarrik 1720B edizioan aplikatutako *ethorquiçunerat* > *ethorqui çunerat* (22) adibidea.

Lehenengo hiru hitz-banaketa moten adibideak 1760ko edizioan egokitzen dira, eta hurrengo bi edizioek (1769. eta 1788. urtekoek) mantentzen dituzte. Aldaketa hauetako gehienek berariaz eginak dirudite, hitzak bildu eta bereizteko irizpide ezberdinen ondorioz. Hala ere, liburua sakonago aztertu beharko genuke azkeneko hau egiaztatzeko. Esan bezala, azken puntuan aipatu dugun *nolapresuna* > *nola presuna* (12) salbuespena izan daiteke, akats baten zuzenketa baitirudi. Izan ere, 1720A-n eta 1720B-n elkartuta ikusten dugu, baina 1760ko ediziotik aurrera banaturik dago. Berdina uste dugu 1720B edizioaren *ethorquiçunerat* > *ethorqui çunerat* (22) adibidearen kasuan, alegia, *contrefaçon* edizioaren akats argia izan daitekeela.

Hitz-elkarketa bi ditugu, 4.7. kapituluan: *utz çatçu* > *utsatçu* (24), eta *egiñ ahala* > *egiñahala* (32). Lehenengo 1760ko edizioan egokitu eta hurrengoetan mantentzen den zuzenketa da, eta hortaz, berariaz egindakoa izan zela suposa dezakegu. Bigarrena, 1788. urteko edizioan aplikatzen da, agian akats baten ondorioz.

- ❖ Lehenik, minuskulaz idaztetik maiuskulaz idaztera igarotako bi motatako hitzak ditugu. Alde batetik, hitz “sokratuak” hasierako letra larriz idazten hasten dira: 1.1. kapituluan *jaincoaren* > *Jaincoaren* (6), 1720B edizioan aplikatu eta hurrengoetan mantentzen da; 4.7. kapituluan *eliçaco* > *Eliçaco* (19), 1760ko edizioan aplikatu eta mantenduko dena. Bestalde, 1.1. kapituluan bi puntuen osteko hitzaren lehen letra maiuskulaz idazten dute 1760ko ediziotik aurrera: *beguia* > *Beguia* (18). Edizio berean 4.7. kapituluan *APheçac* > *APHEÇAC* (1) aldaketa egitea erabakitzen da, hurrengo edizioetan ere mantenduko dena. Kapituluaren lehenengo hitza izateagatik egindako aldaketa izan daiteke. Ikusitako lau adibide hauek berariaz egindakoak dirudite.

Bigarrenik, maiuskulaz idaztetik minuskulaz idaztera igarotako adibide bat daukagu: 1.1. kapituluan *Guciac* > *guciac* (1). 1760ko edizioan egokitu eta hurrengoetan mantenduko den zuzenketa da, eta ondorioz, berariaz egindako zuzenketa. Izan ere, ez du inongo puntuazio markarik aurretik.

❖ Grafia aldaketak bi taldetan banatu ditugu. Alde batetik, erraten zuzenketaren ondoriozkoak, lehen ere okertzat har zitezkeen formen zuzenketak. Bestetik, hizkuntzaren berezko aldaketari zor zaizkien aldaketak, eguneratzearen ondoriozko zuzenketak. Azken hauek ematen diguten informazioa Mounole eta Gómezen (2018) lanean aipatzen diren hizkuntza aldaketekin alderatuko ditugu.

➤ Nahi gabe sortutako akatsak gehienetan edizio bakar batean gertatuko dira, gainontzeko edizioetan errepikatzen ez direnak. Hauek batez ere 1720B edizioan ikus ditzakegu. 1.1. kapituluan: *meditatcea* > *metitac a* (3), *Sainduec* > *Saieduec* (4), *berthute* > *berthutte* (11). Lehenengo forma zuzenak 1720A *princeps*-ean ikusten ditugun formak dira, bigarrenagoak aipatu berri dugun *contrefaçon* edizioakoak dira. 4.7. kapituluan ere, soilik 1720B edizioan sortutako erratak ditugu: *ahal* > *hal* (4), *campoco* > *camgoco* (10), *chuchentceco* > *cuchhentceco* (21), *handitan* > *hantitan* (28), eta *eta* > *etai* (29). Hortaz, sobera adibide edizio ez zaindua izan zela argudiatzeko. Hala ere, beste edizio batzuetan bakarrik idatzitako erratak ere bildu ahal izan ditugu: 1760eko edizioan ergatiboa ahaztu eta *Iaunac* > *Iauna* (34) idazten da, eta aurrerago ikusiko dugun 1788ko edizioan <z> eta <s> nahasi eta *bihotçaz* > *bihotças* (23) ikusi dezakegu.

Edizio batean baino gehiagotan errepikatzen diren erratak ere baditugu: 1.1. kapituluko *choilqui* > *choillqui* (15) eta 4.7. kapituluko *fiñatceco* > *fiñcatceco* (17). 1720A eta 1720B edizioetan errata dago, baina 1760. urteko ediziotik aurrera zuzenketa egiten da. Ez da batere arraroa 1720B bezalako edizio trakets batek 1720A erratak errepikatzea. Honi gehitu beharko genioke hasieratik Xuriok *fiñcatceco* eta *choillqui* formak erabili nahi izan zituela uste dugula, eta arrazoi hori dela eta, hizkuntzaren barneko aldaketen sailkapenetik kanpo utzi ditugu. Hala ere, guztiz ziur egoteko 1720A-n beste halako formak daudela egiaztatu behar genuke.

Ikusi dugunaren kontrako bidean doazen erratak ere badaude: 1720A zein 1720B edizioetan zuzen idatzitako hitz batzuetan 1760ko ediziotik aurrera errata sortu eta hurrengoetan ere mantenduko dira: 4.7. kapituluan *atçarria* > *etçarria* (15) aldaketa eta perpaus berean dagoen hitzaren *elheen* > *elkheen*

(16) aldaketa ikus dezakegu. OEHn bilatu ostean, adiera ezberdinetako aditzak direla ikusi ahal izan dugu: *atçarria* “esnatua” esan nahi du (ik. OEH, s.v. *atzarri*), *etçarria* “ipinia”. Gainera, lapurteraz *ezarria* bai, baina *etzarria*-ren adibiderik ez dago, errata ez denik behintzat (ik. OEH, s.v. *ezarri*). Hortaz *atçarria* forma egokia dela ondoriozta dezakegu, *etçarria* errata. Bestalde, *elhe* forma “ele” hitzaren forma hasperenduna dugu, eta *elkhe* hitzaren bilaketak ez digu ordainik eman (ik. OEH, s.v. *elkhe*). Testuingurua hurrengoa da: *Haiñ atçarria elheen aditceco; haiñ lotia khoroan cantatceo* (1720A). Hitzen esanahia eta testuingurua kontuan harturik, esan dezakegu *atçarria* eta *elheen* direla forma egokiak, esaldiak zentzua hartzen baitu.

1769ko edizioan sortuko den errata bat ere badugu: *escuetarat* > *escueterat* (25). Gainera, ez da edonolako errata, 1788ko edizioan errepikatuko baita. Honek esan nahi digu 1769ko eta 1788ko aleek akats bateratzaile bat (momentuz) partekatzen dutela.

Arestian aipaturiko 1788ko edizioko <z> eta <s> nahasketari helduko diogu. Mounole eta Gómezek (2018: 499) aipatzen dute ohikoa dela lapurtera eta zuberera klasikoko idazkietan apikariaren bidez bizkarkaria adieraztea txistukarrietan, eta hain ohikoa ez izan arren, afrikatuetan ere gertatzen dela. Ematen duten arrazoia hurrengoan datza: frantses ortografian <s> grafema bizkarkaria adierazteko erabiltzen zen, eta garaiko idazleek frantses ortografia sistema zeukaten eredutzat. Bestalde, frantsesez <z> grafema hitz bukaeran oso urria zela argudiatzen dute, eta <s> grafema, ordea, ugaria. Hortaz, oinarrian arazo grafikoa egon zitekeela ondorioztatzen dute, eta arrazoi beragatik sailkatu dugu guk adibidea hizkuntzaz kanpoko aldaketen baitan. Talde berean sartuko dugu bide ezberdina hartu duen 1.1. kapituluko *Eguias* > *eguiaz* (10) adibidea. Hemen ere, nahiz eta 1720A eta 1720B edizioetan <s> grafemarekin idatzita ageri zaigun, bizkarkaria ahoskatzen zela jakin dezakegu. Horren adibide 1760. urtean <z> grafema lehenetsi izana. Azkenik, lehenengo bi edizioetan apikaria adierazi nahi baina <z> grafemaren bidez adierazten den forma ikus dezakegu: *deuz* > *deus* (5) bilakatzen da 1760. ediziotik aurrera. 1760ko edizioa da, beraz, orokorki zuzenketa gehienak egiten dituen.

Atal honekin bukatzeko grafia etimologikoa emateagatik egindako aldaketak aipatuko ditugu, finean, ez baitituzte hizkuntzaren barneko ezaugarriak islatzen. Mounole eta Gómezen (2018: 494) lanaren arabera, euskara landuak ekarritako grafia berezia izan zen: hizkuntza emailearen zein jatorrizko euskararen grafia mantentzen saiatu ziren lapurtera klasikoko idazleek. Hala ere, ez zen joera orokortua izan eta ez zen denboran zehar berdin mantendu. Autoreen aburuz Xuriok grafia fonologikorako joera du, nahiz eta askotan idazkera etimologikoak erabiltzen dituen. Guk bi adibide topatu ditugu 4.7. kapituluan: 1720B edizioan *imaginacione* > *imaginatione* (9) adibidea dugu, non *imaginatio* latinezko formatik <t> grafema lehenetsi den, <c> beharrean; 1788ko edizioan *comunione* > *communione* (31) adibidea, non *communio* latinezko formatik <mm> lehenetsi den, <m> beharrean. Hortaz, Mounole eta Gómezek (2018: 494) aipatutakoarekin bat gatoz, grafia etimologikoan emandako formak *princeps*-aren osteko edizioetan bakarrik agertzen baitzaizkigu.

- Hizkuntzaren berezko aldaketak islatzen dituzten adibideak hiru taldetan sailkatu ditugu.

Lehenik eta behin, 1.1. kapituluaren *baziñaquizqui* > *bazinaquizqui* (13) adibidean, *i* osteko *ñ* > *n* aldaketa gertatzen da, 1769ko ediziotik aurrera. Gainera, hurrengo edizioan mantenduko den aldaketa da. Pikabeak (1993:29) azaldutako lapurteraren despalatalizazioaren arrasto bat topatu bide dugu. Lapurteran xvii. eta xviii. mende erdira arte bustidura guztiz zabaldua zegoela aipatzen du autoreak, eta 1775etik aurrera galtzen hasten dela, xix. mendean ia guztiz desagertua egon arte. Pikabearen datak zehatzak balira, beharbada fenomeno honen lehen adibideetako baten aurrean geundeke.

Bigarrenik, 1.1. kapituluan, *ençuten* > *entçuten* (7) eta *ansicabea* > *antsicabea* (11, 18) aldaketak egokitzen dira. Lehenengoa 1769ko edizioan gertatzen da, eta hurrengoan ere hala mantentzen da. Bigarrena 1760ko edizioan gertatu eta hurrengo bietan mantenduko da. Nahiz eta gaur egun ozenen osteko txistukariak afrikatuaren alde neutraldu ohi ditugun (ekialde hertsian izan



ezik), ez da beti horrela izan. Euskara zahar eta klasikoan, Iparralden ia orokorki frikaria idatzi ohi zuten *n* eta *l* ondoan, eta afrikatua zein frikaria *r* ondoan (Mounole & Gómez 2018: 498). Lehen euskara modernoaren hasieran afrikatuen aldeko joera hazten doa, neutraltzea orokorra izan ez arren (Urgell 2018: 617). Gure adibideetan, *n*-aren osteko afrikatzearen aldeko neutraltzearen prozesua dakusagu.

Hirugarrenik, hatxea txertatu edo ezabatzearen ondorioz herskariak hasperendun edo hasperengabe bihurtzen dira. Alde batetik, 4.7. kapituluan *baithan* > *baitan* (7) aldaketa gertatzen da 1760ko ediziotik aurrera. OEHren arabera (s.v. *baita*, *baithan*) *baita* forma nagusia da Lapurdin. 1800 arte <th> digrafoa nagusi da, baina badira Etxeparerengandik *baitan* idazten duten egileak. Hala ere, azterketa sakonago bat beharko da aldaketa sistematikoa den, edo 1760ko edizioan usua den ala ustekabean egindakoa den jakiteko.

Bestetik, kapitulu berean *gorputceco* > *gorphutceco* (13), *gorputça* > *gorphutça* (26), *gorputçaren* > *gorphutçaren* (27), eta *gorputçarequiñ* > *gorphutçarequiñ* (30) adibideak ditugu. 1760ko aldaketak dira denak. OEHren arabera (s.v. *gorputz*) *gorphutz* da Iparraldean dokumentatutako forma (Zuberoan izan ezik). Ondorio emankorrek ateratzeko sakonago aztertu beharko da, baina baliteke 1720A edizioan egindako erraten zuzenketa izatea. Gainera, behin eta berriz egin izanak erakusten digu 1760ko edizioaren paratzaieak oso argi zeukala hitza nola idatzi behar zuen.


❖ Bukatzeko, beste mota bateko aldaketa batzuk ditugu. Atal honetan aipatuko ditugun zehaztasunak (puntuazioa eta hitzen ezabaketa) aurretik egin ditugun zenbait auresuposizio indartzeko baliatuko ditugu. Hortaz, ondorio garrantzitsuak ateratzeko behar ditugunak besterik ez ditugu aipatuko. Puntuazioari dagozkion aldaketa interesgarriak: 1.1. kapituluan, bi puntuak puntu eta koma batekin ordezkatuak izan dira behin 1720B edizioan. Gainontzeko guztietan bi puntuak topatuko ditugu. Hortaz, *contrefaçõn*-aren beste errata baten aurrean geundeke. Bestelako adibide interesgarri bat ere badugu: 4.7. kapituluan *haiñ flaco* > *flaco* (20) aldaketa ematen da, hau da, hitz bat galtzen da. Ohikoa da oharkabean *haiñ* bealako hitzak kopiatzen ahaztea, galduz gero esnahia asko ukiten ez dutelako. Aldaketa honen alderdirik garrantzitsuena 1769ko

edizioan aplikatzen dela da, eta 1788ko edizioan aldaketa mantentzen da. Horra 1788ko edizioa 1769ko edizioaren gainean egin zela erakusten digun beste akats bateratzailea.

#### 2.4. *Constitutio stemmatis codicum*

Bildu dugun informazioarekin *Jesu-Christoren Imitacionea*-ren *stemma codicum*-aren proposamena egingo dugu. Kapituluaren arteko erkaketa honetatik emaitza oso garbiak atera ditugu, lagina txikia izan arren. Lehenik eta behin 1720B edizioa, Vinsonen *contrefaçon* delakoa, guztiz baztertzen lagundu digu. 1720A edizio *princeps*-ean ikusi ez ditugun mota guztietako erratak erreproduzitzen zituela ikusi dugu, 4.7. kapituluaren batez ere. Bukaerako kapituluaren arteko gutxiago eskaintzea ohikoa den fenomeno da. Edizio honetan topatutako zenbait errata aipatzearen: 1.1. kapituluaren, *meditatcea* > *metitac a* (3), *Sainduec* > *Saieduec* (4), *berthute* > *berthutte* (11); eta 4.7. kapituluaren ere, *ahal* > *hal* (4), *campoco* > *camgoco* (10), *chuchentceco* > *cuchhentceco* (21), *handitan* > *hantitan* (28), eta *eta* > *etai* (29), *ethorquiçunerat* > *ethorqui çunerat* (22). Errata hauek ez direnez hurrengo edizioetan errepikatzen, edizio hau hurrengoek jarraituko ez dutela ondoriozta dezakegu.

Behin edizio hau alde batera utzita, 1760ko edizioa nahiko txukuna dela ikus dezakegu. Nabarmena da 1720Ari atxikitzen zaiola, irakurketa ezberdinak konpartitzen baitituzte: *ençuten* (7) edo *escuetarat* (25). Zenbaitetan akatsak zuzentzen eta bestelako aldaketak egiten ditu: 1.1. kapituluaren kasuan, *behardu* > *behar du* (9), *Eguias* > *Eguiaz* (10), edo *choilqui* > *choillqui* (15) aldaketak aplikatzen ditu; 4.7. kapituluaren, *APheçac* > *APHEÇAC* (1), *ezpailaiteque* > *ez bailaiteque* (5) edo *fiñatceco* > *fiñcatceco* (17) aldaketak. Dena den, akats berriren bat ere egiten du: *atçarria* > *etçarria* (15). Agerikoa da hurrengo 1769ko edizioa 1760koaren gainean egin dela, arestian ikusitako emendakinez gain, akats bateragarri berriak topatu ditugulako: *elkheen* (16) eta *etçarria* (15) erratak errepikatuko ditu, aurretik aipatutako zuzenketekin batera. Bukatzeko, aurretik jakin ezin genuen ondorio bat ateratzeko balio zaigu edizioen arteko konparaketa: 1788ko edizioak 1769koa jarraitzen du. 1788ko eta 1769ko edizioetan topatutako akats bateratzaileak eta aldaera berri partekatuak: 1.1. kapituluaren, *ençuten* (7), *bazinaquizqui* (13), eta 4.7. kapituluaren *flaco* (20), edo *escueterat* (25). Gainera, 1760eko edizioaren akatsa ( 4.7. kapituluaren, *Iaunac* > *Iauna*, 34) zuzenduta dakarte biek.



1. diagrama: *stemmatis codicum*

### 3. ONDORIOAK

Hizkuntzaren historian sakondu ahal izateko bibliografia materiala behar-beharrezkoa den lana da, eta gurean ezin esan genezake garatutako ikerlerroa denik. Iparraldeko euskara zahar eta klasikoko obra ugari ezagutzen baditugu ere, hauetako asko oraindik ez dira nahi genukeen bezain aztertuak izan. Honen adibide da lapurtera klasikoaren epinogotzat hartu dezakegun Michel Xurio, 1720. urtean argitaratu zen *Jesu-Christoren Imitacionea*-ren autorea. Guk, obra honen XVIII. mendeko edizioen gaineko azterketan sakondu dugu, edizioen arteko erlazioa zein izan zen argitzeko helburuarekin.

Filologiaren metodologia erabili dugu edizioen arteko filiazioa zehazteko (Blecua 1983, ap. Atutxa 2008). Metodologia honi jarraiki, lau zatitan banatu dugu gure egitekoa. Hasteko, *fontes criticae* zatia, non materialen bilketa eta sailkatzea egin dugun. Aleen bilketa egiteko, hautatu ditugun liburutegietako ale digitalizatuak batu ditugu. Guztira 14 ale bildu ditugu, eta Vinsonen (1984) terminologiaz baliatu gara hauek izendatzeko: 1720. urteko edizioetatik lau ale (Vinson 49-a edo 49-b), 1760. urteko ediziotik bi ale (Vinson 49-c), 1769. urteko ediziotik lau ale (Vinson 49-d), eta azkenik 1780. urteko ediziotik lau ale (Vinson 49-e).

*Collatio codicum* zatian, aleen alderdi formala eta edukia konparatu ditugu. Lehenik, aleen azalaren konparaketa egin dugu, edizio urtea egiaztatzeko. Azalik gabeko ataletan tako xilografikoen marrazkiak erabili ditugu zein ediziotakoak diren zehazteko. Aleak bost edizio ezberdinen baitan sailkatu ahal izan ditugu: 1720A, 1720B, 1760, 1769 eta

1788. Jarraian, ale bakoitzaren atal eta orrialde kopurua deskribatu dugu. Atal honetan zenbait filiazio harreman argitara atera ahal izan ditugu: 1720A edizio *princeps*-a izan zen, eta honen gainean egin zen 1720B *contrefaçon*-a. 1760ko edizioa aurreko bi edizioetatik batean oinarritua izan behar zen, eta emendakin berriak zituen. Emendakin hauek 1769ko edizioan ere bazeuden: hortaz, 1760koaren gainean egindakoa izan behar zuen. 1788ko edizioak ere baditu 1760ko emendakinak, baina honengatik bakarrik ezin jakin 1760ko edo 1769ko edizioan oinarritua ote zegoen.

Hirugarrenik, edizio bakoitzeko hasiera eta bukaerako lagin bat hartu eta konparaketa egin dugu (*examinatio et selectio*). Honetarako edizio bakoitzetik *Lehenbicico Liburua*-ren “i. Capitulu” eta *Laugarren Liburua*-ren “vii. Capitulu” hautatu ditugu. Erabilitako lagina txikia izan arren, emaitzak aurretik ondorioztatutakoak bermatzeaz gainera, oraindik erantzun gabe genituen zalantzak argitzeko balio izan zaizkigu: Xurioren xviii. mendeko tradizioan 1720B edizioa akastunena da, ondorengo edizio batek ere jarraituko ez duena. Bestalde, 1760ko edizioak tradizioan garrantzi berezia daukala esan dezakegu, *princeps*-aren jarraipena delako eta hurrengo bi edizioen oinarria izango delako (hirurek partekatutako akats bateratzaileak dituzte). Gainera, konparazioz akats gutxi dituen alea da. Bukatzeko, 1788ko edizioa 1769ko edizioaren gainean egindakoa dela egiaztatu ahal izan dugu, akats bateratzaile eta berrikuntza parekatuengatik. Laburki esanda, 1720B edizioa izan ezik, besteek zeinek bere aurrekoari jarraitzen diotela argitu ahal izan dugu. Arestian aipatutako pausoei esker, edizioen arteko filiazio harreman proposamena egitea lortu dugu (*constitutio stemmatis codicum*).

Lan honen bitartez Xurioren liburuaren ezagutzan aurrerapen esanguratsu batzuk lortu diren arren, oraindik ere lan handia falta zaigu Xuriok beharko lukeen edizio kritikoa egiteko. Poztasun handiz ikusiko nuke aurrerantzean norbaitek lanaren jarraipenari helduko balio.

## Bibliografia:

- Atutxa, I. (2008). "Las obras de Joanes Etxeberri de Ziburu". *Seminario "Monumenta Linguae Vasconum proiektua (2002-2008). Sei urte ikerketan"*, Vitoria-Gasteiz, 10 de septiembre de 2008. Gasteiz: UPV/EHU.  
<<https://www.ehu.es/monumenta/seminario2008.htm>>
- Francisque, M. (1857). *Le Pays Basque*, Paris: Librairie de Firmin Didot frères.
- Gaskell, Philip, 1999 [1972], "La identificación", *Nueva introducción a la bibliografía material*. Gijón: Trea. 391-452.
- Gómez, Ricardo & Céline Mounole, (2013). "Euskara zahar eta klasikoa", in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 469-489.
- Krajewska, D., Zuloaga, E., Santazilia, E., Ariztimuño, B., Uribe-Etxebarria, O., & Reguero, U. (2017). "2.1. xvii. mendeko Lapurdi", *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana (1617 & 1623). Edizioa eta azterketa. ASJU LI (1/2)*, 5-11.  
<https://doi.org/10.1387/asju.18904>
- Lafitte, P. (1931). *Eskualdunen loretegia: XVI garren mendetik hunateko liburuetarik bildua*. LASSERRE LIBURUTEGIAN: Baiona. 62. <http://hdl.handle.net/10357/795>
- Oinandia, S. (1972). "Mixel Xurio (...-1718)". *Armiarma*.  
<https://zubitegia.armiarma.eus/?p=ona-716>
- Pikabea, J. (1993). "Behe-Nafarreraren eragina literatur lapurteraz", *Lapurtera idatzia (xvii-xix). Bilakaera baten urratsak*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoa Donostia Kutxa. 29-30.
- Salaberri Muñoa, P. (2007). "Axularren Gero liburuaren ale kasi birjinaleko "M" pleguaz", *FLV* 105, 303-323.
- Salaberri Muñoa, P. 2011 [2007], "Axularren Gero liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak", in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra)*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 201-216.
- Ulibarri, K. (2009). « "Viva Jesus" Dotrinaren Azterketa Bibliografia Materialaren Arabera». *ASJU* 43 (1-2): 861-871 <https://doi.org/10.1387/asju.1770>
- Urgell, Blanca (2018). "Lehen euskara modernoa", in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 543-657.

- Urgell, B. (2022). *Euskararen Historia I: eskuliburua*, Gasteiz: UPV/EHUko lan argitaragabea.
- Villasante, L. (1979). *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aranzazu: Oñati. 109-110.
- Vinson, J. (1891-1898). *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris, J. Maisonneuve. Faks. J. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9). Donostia: "Julio de Urquijo" Mintegia & GFA, 1984.

1. ERANSKINA: *Lehenbico Liburua*, “I. Capitulua”

ALDAKETAK

Ostera aldatuko diren formetan letra lodia ipini dugu aldaketa gehienak noiztik aurrera jazo ziren modu argiago batean ikus dadin. Formen aurreko zenbakiak hauen orrialdea eta lerroa adierazten dute. Lerroei egokitutako ondozkatze-zenbakiak lerro errearen arabera finkatu dira, atal-buruak eta tarreak aintzat hartu gabe.

	1720A-BFA	1720B-SSF	1760-ELO	1769-KMK	1788-KMK
1	1, 8: <b>Guciac</b>	1, 8: <b>Guciac</b>	3, 7: guciac	25, 7: guciac	27, 7: guciac
2	2, 4-5: <b>içanbeharda</b>	2, 4-5: <b>içanbeharda</b>	4, 1-2: içan behar da	26, 1-2: içan behar da	28, 1-2: içan behar da
3	2, 7: meditatcea	2, 7: <b>metitac a</b>	4, 3: meditatcea	26, 3: meditatcea	28, 4: meditatcea
4	2, 8: Sainduec	2, 8: <b>Saieduec</b>	4, 4: Sainduec	26, 4: Sainduec	28, 4: Sainduec
5	2, 9: <b>deuz</b>	2, 9: <b>deuz</b>	4, 5: deus	26, 5: deus	28, 5: deus
6	2, 11: <b>jaincoaren</b>	2, 11: Jaincoaren	4, 6: Jaincoaren	26, 6: Jaincoaren	28, 6: Jaincoaren
7	2, 14: <b>ençuten</b>	2, 14: <b>ençuten</b>	4, 9: <b>ençuten</b>	26, 9: entçuten	28, 10: entçuten
8	2, 17: <b>ezbaitute</b>	2, 17: <b>ezbaitute</b>	4, 11-12: ez baitute	26, 12: ez baitute	28, 13: ez baitute
9	2, 20: <b>behardu</b>	2, 20: <b>behardu</b>	4, 14: behar du	26, 14: behar du	28, 16: behar du
10	3, 1: <b>Eguias</b>	3, 1: <b>Eguias</b>	4, 22: Eguiaz	26, 22: Eguiaz	28, 24: Eguiaz
11	3, 3: berthute	3, 3: <b>berthutte</b>	4, 23-24: berthute	26, 23-24: berthute	28, 25-26: berthute
12	3, 7: <b>nolapresuna</b>	3, 7: <b>nolapresuna</b>	4, 28: nola presuna	26, 28: nola presuna	28, 30: nola presuna
13	3, 10: <b>baciñaquizqui</b>	3, 11: <b>baziñaquizqui</b>	5, 2: <b>baziñaquizqui</b>	27, 2: bazinaquizqui	29, 2: bazinaquizqui
14	3, 11: <b>ezbaduçu</b>	3, 12: <b>ezbaduçu</b>	5, 3: ez baduçu	27, 3: ez baduçu	29, 3: ez baduçu
15	3, 16-17: <b>choilqui</b>	3, 17-18: <b>choilqui</b>	5, 8: choillqui	27, 8: choillqui	29, 8: choillqui
16	4, 6: <b>dohacabebat</b>	4, 6: <b>dohacabebat</b>	5, 25: dohacabe bat	27, 25: dohacabe bat	29, 26: dohacabe bat
17	4, 10: <b>handibat</b>	4, 10: <b>handibat</b>	5, 29: handi bat	27, 29: handi bat	29, 30: handi bat
18	4, 16: : <b>beguia</b>	4, 16: ; <b>beguia</b>	6, 5: : Beguia	28, 5: : Beguia	30, 5: : Beguia
19	4, 22: <b>complitu</b>	4, 22: complitu	6, 10: complitu	28, 10: complitu	30, 10: complitu

2. ERANSKINA: *Laugarren Liburua*, “VII. Capitulua”

ALDAKETAK

Aurreko taulan erabilitako irizpide berak erabiliko ditugu: letra lodia ostera aldatuko diren formetan ipini dugu, eta zenbakiak orrialdea eta lerroa adierazten dute. Lerroei egokitutako ondozkatze-zenbakiak lerro errealean arabera finkatu dira, atal-buruak eta tarteak aintzat hartu gabe.

	1720A-BFA	1720B- BMB	1760-ELO	1769-KMK	1788-SSF
1	379, 10: <b>APheçac</b>	379, 10: <b>APheçac</b>	315, 13: APHEÇAC	377, 13: APHEÇAC	444, 7: APHEÇAC
2	379, 11 - 12: <b>errecibitçeco behar</b>	379, 11 - 12: <b>errecibitçeco behar</b>	315, 14: errecibitçeco , behar	377, 14: errecibitçeco , behar	444, 8: errecibitçeco , behar
3	379, 16: <b>phuru, eta</b>	379, 16: <b>phuru, eta</b>	315, 18: <b>phuru, eta</b>	377, 18: <b>phuru, eta</b>	444, 12: phuru; eta
4	379, 19: <b>ahal</b>	379, 18: <b>hal</b>	315, 21: ahal	377, 21: ahal	444, 15: ahal
5	379, 21-22: <b>ezpailaiteque</b>	379, 20-21: <b>ezpailaiteque</b>	315, 23: ez bailaiteque	377, 23: ez bailaiteque	444, 17: ez bailaiteque
6	380, 5: <b>Jaincoari, çure</b>	380, 5: <b>Jaincoari, çure</b>	316, 2: Jaincoari çure	338, 2: Jaincoari çure	444, 24: Jaincoari çure
7	380, 7: <b>baithan</b>	380, 7: <b>baithan</b>	316, 3: baitan	338, 3: baitan	444, 25: baitan
8	380, 13: (...), <b>eta</b>	380, 12: (...), <b>eta</b>	316, 8: (...), <b>eta</b>	338, 8: (...), <b>eta</b>	445, 4: eta , (...)
9	380, 15: <b>imaginacione</b>	380, 15: <b>imaginacione</b>	316, 11: imaginacione	338, 11: imaginacione	445, 7: imaginacione
10	380, 18: <b>campoco</b>	380, 18: <b>campoco</b>	316, 13: campoco	338, 13: campoco	445, 9: campoco
11	380, 19: <b>ansicabea</b>	380, 19: <b>ansicabea</b>	316, 14: antsicabea	338, 19: antsicabea	445, 10: antsicabea
12	380, 21-22: , <b>eta dostatcerat ,</b>	380, 21-22: , <b>eta dostatcerat ,</b>	316, 15-16: , <b>eta dostatcerat ,</b>	338, 15-16: , <b>eta dostatcerat ,</b>	445, 11-12: eta dostatcerat
13	380, 24: <b>gorputceco</b>	380, 24: <b>gorputceco</b>	316, 18: gorputceco	338, 18: gorputceco	445, 14: gorputceco
14	380, 25: <b>dituena :</b>	380, 25: <b>dituena :</b>	316, 19: dituena ;	338, 19: dituena ;	445, 15: dituena ;
15	381, 12: <b>atçarria</b>	381, 12: <b>atçarria</b>	317, 5: etçarria	339, 5: etçarria	446, 1: etçarria
16	381, 12: <b>elkheen</b>	381, 12: <b>elkheen</b>	317, 5: elkheen	339, 5: elkheen	446, 1: elkheen
17	381, 14: <b>fiñatceco</b>	381, 14: <b>fiñatceco</b>	317, 7: fiñatececo	339, 7: fiñatececo	446, 3: fiñatececo
18	381, 16: <b>ansicabea</b>	381, 16: <b>ansicabea</b>	317, 9: antsicabea	339, 9: antsicabea	446, 3: antsicabea
19	381, 16: <b>eliçaco</b>	381, 16: <b>eliçaco</b>	317, 9: Eliçaco	339, 9: Eliçaco	446, 3: Eliçaco
20	381, 26: <b>haiñ flaco</b>	381, 26: <b>haiñ flaco</b>	317, 18: <b>haiñ flaco</b>	339, 18: flaco	446, 14: flaco
21	382, 6: <b>chuchentceco</b>	382, 6: <b>cuchentceco</b>	317, 27-28: chuchentceco	339, 27-28: chuchentceco	446, 24: chuchentceco
22	382, 7: <b>ethorquiçunerat</b>	382, 7: <b>ethorqui çunerat</b>	317, 28: ethorquiçunerat	339, 28: ethorquiçunerat	446, 24: ethorquiçunerat
23	382, 9: <b>bihotçaz</b>	382, 9: <b>bihotçaz</b>	318, 1: <b>bihotçaz</b>	340, 1: <b>bihotçaz</b>	446, 26: bihotças
24	382, 12: <b>utz çatçu</b>	382, 12: <b>utz çatçu</b>	318, 3: utsatçu	340, 3: utsatçu	446, 28: utsatçu
25	382, 12: <b>escuetarat</b>	382, 12: <b>escuetarat</b>	318, 3-4: <b>escuetarat</b>	340, 3-4: escueterat	446, 29: escueterat
26	382, 13: <b>gorputça</b>	382, 13: <b>gorputça</b>	318, 4: gorputça	340, 4: gorputça	446, 29: gorputça
27	382, 17: <b>gorputçaren</b>	382, 17: <b>gorputçaren</b>	318, 7-8: gorputçaren	340, 7-8: gorputçaren	447, 3: gorputçaren
28	382, 18: <b>handitan</b>	382, 18: <b>hantitan</b>	318, 9: handitan	340, 9: handitan	447, 4: handitan
29	382, 22: <b>eta</b>	382, 22: <b>etai</b>	318, 11: eta	340, 11: eta	447, 6: eta
30	382, 26-27: <b>gorputçarequiñ</b>	382, 26: <b>gorputçarequiñ</b>	310, 9: gorputçarequiñ	340, 15: gorputçarequiñ	447, 10: gorputçarequiñ
31	381, 28: <b>comunione</b>	382, 27-28: <b>comunione</b>	318, 10: <b>comunione</b>	340, 16: <b>comunione</b>	447, 11-12: comunione
32	382-383, 29-1: <b>egiñ ahala</b>	382-383, 29-1: <b>egiñ ahala</b>	318, 17: <b>egiñ ahala</b>	340, 17: <b>egiñ ahala</b>	447, 13: egiñahala
33	383, 4: <b>buruaz</b>	383, 4: <b>buruaz</b>	318, 20-21: buruaz,	340, 20-21: buruaz,	447, 17: buruaz,
34	383, 5: <b>Iaunac</b>	383, 4: <b>Iaunac</b>	318, 21: <b>Iauna,</b>	340, 21: <b>Iaunac,</b>	417, 17: <b>Iaunac,</b>
35	383, 7: <b>dadiñ :</b>	383, 7: <b>dadiñ ;</b>	318, 23: <b>dadiñ ;</b>	340, 23: <b>dadiñ ;</b>	417, 19: <b>dadiñ ;</b>



	Kolap Mirvetza	Esk. F.A.	S. el Eabio	RUP	Larunak	Bizeta	Baionako Euskal Museoa	Gailea
1720A	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 b, Alca 580728, Vincon-48a.	https://liburutegibideak.kmliburutegia.eus/ de-identifikatzaile/1086812 DIGITALIZATUA, 48a (1720b-V izena)		https://biblioteca.unavarra.es/oa/ezabeteoposibonet/ezabeteoposibonet-161 Madirako Unibertsitate publikoa Signaturaz: [J] A.Z.14. 2A.3N4.8. 2C4. Digitalizatu (1720b-A)	http://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz: J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz: J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz: J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz: J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.
1720B	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.
1760	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.
1769	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.
1768	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.	https://www.kmliburutegia.eus/FONDO GORDEAK Signaturaz J.U. 4751 c, Alca 25823 V. 48b.

Baionako Euskal Museoren emaitzak Bilketan bidez aurkitu ditugu. Hala ere, zutabe berriari batean jartzea erabaki dugu, honen kopuru handia dela eta.